

# Oldarraldi judizialaren atzean



SONIA GONZÁLEZ  
IDAZLEA ETA ABAR



PAULA ESTÉVEZ

**U**daletxera jo genuen aurrekoan. Zenbait lagun kezkatu gaude gure herri euskaldun honetan erdara paisaia linguistikoa, besteak beste, apurka bereganatzen ari dela ikusita. Geure artean komentatzeaz kantsaturik, ardura daukan administrazioari helarazi genion egonezina. Eurak ere jakitun dira, noski, baina ostalaritza, merkataritza eta abarrei gonbidapenak egitetik harago, gauza gutxi ahal dela. Kontuz ibili behar dela ordenantzetan jartzen denarekin, helegiteak etor daitezkeelako.

Eta hala da. Auzitegiak hizkuntza politika egiten ari dira, gobernu eta administrazio organoen funtzioak lapurturik.

Ez naiz inozoa, ezer ez egiteko aitzakia perfektua ere izan liteke, baina izan dezagun gutxieneko konfiantza.

Edozelan, auzitegien jarduera ezin da isolatuki aztertu. Oldarraldi oso bat pairatzen ari gara euskararen kontra, berriz ere eta inoiz eten bada. Hasteko, auzitegiek ez lukete sententziarik emango, errekursoak sistematikoki jartzea norbaiten estrategiaren parte ez balitz.

Ideologikoki ere garatzen ari den estrategia honek, hizkuntza eskubideak ez ezik, beste eskubide batzuk kolpatzen dituzten estrategiekin puntuak partekatzen ditu. Aurrerapausoen aurreko *backlash* edo erreakzioa da. Eskubideak

aldarrikatzeak, jendartean bizitzea askotariko zapalketa sistema konplexuetan bizitzea dela barneratzea egin genuen. Horretan gabiltza eta funtsa horixe bera da kolpatzen ari direna.

Bionomioko elementu biak parekatzea, botere harremanak kontuan hartu barik, zapaldua eta zapaltzailea lekuz trukitzea dauka helburu. Azken sasoiko falazia handienetako bat da. Arrazoinamendu okerra izan arren, arrazoiketa logikoaren itxura izan dezake. Terminoek ondo jo dezakete belarrira, baina faltsukeriako proposizioak dira.

Elebitasunaren elkarbizitza. Ni elebiduna izan arren, zu elebakarra bazara, nire hizkuntza ezagutzen ez duzun heinean, zure hizkuntzara behartu egiten nauzu. Hori ez da elkarbizitza. Hori zapalketa linguistikoa da.

Aukera askea. Ildo beretik, nik ezin dut aske aukeratu, nire hizkuntzaz aritzea galarazten badidazu.

Erdaldunen hizkuntza eskubideak. Gaztelera desagertzeko arriskuan dagoela eta Iturgaitz modukoen halako *boutadeak* albo batera utzita, zapalketa historikoa zelan edo halan zuzentzeko neurriak pribilegioekin nahasten dira nahita.

Kexu dira AEBetako WASP-ak, enpresek arrazializatutako jendea errazago

kontratzen omen dutelako. Kexu da 4.0 matxismoa, emakumeek omen dauztagun "pribilegio" legal eta administrati-boengatik.

Erreakzioa momentu aproposaren zain egoten da. Duela hogeitun urte inguru Bertendonako martirien saiakera, esaterako, horrexetan geratu zen, CCOOen saiakera hutsean. Zer aldatu da, ba, azken urteotan? Tentsionamendua galdu dela esan ohi dugu. Hala botatzen dugu baieztapena, aseptiko, neutro. Gatazka linguistikoa gatazka politikoa da. Aztertu beharko genuke, autokritikaz, tentsionamendu politikoak nondik egin digun ihes. Borroka ideologikoa egiteari muzin egin diogun martxa berean beste batzuek "gerra kultural" delakoari ekin diote gogoz.

Zenbaitek "euskara denontzat" nahi dutela esan arren eta beste batzuek -edo bertsuek- "herrialde eleaniztuna helburu" dutela saldurik ere, *blue lives matter* dioen polizia bezalakoak dira, arma eskuan, 16 urteko gazte beltza errepidean odolusten den bitartean. Feminazi deitzen digun gizona dira, euren gainetik jarri eta munduan agindu nahi dugula pontifikatzen duena.

Eta euskaraldia, korrika eta abar guztiekin bat egin nahi izango dute, euskaltzale etiketapen. ●